


Koldo Amestoy kondalari

Aragazkia : Michel Eche - Montage Imprimerie Schneider



tailerrak
eta
topaketak



IPUINGINTZA, ipuin asmaketa

Lehen Mailako irakasleeri zuzendua

Iraupena : 7 oren/ordu

Ipuin bat taldean asmatzea. Deus idatzi gabe, "aho-idazketa" bitartez, sorkuntza batentzat lehen pausoak emanen dira : irudimena, inprobisaketa, bestea adituz, bere hitza errespetatuz, bakoitzak bere berezotasuna erabiliz, ipuinaren egiturak ikertuz, bere konposaketa eta apaindurak moldatuz,...

Ipuingintzan urrats bat edo bi...

Ipuin bat taldean asmatu, "ahoz idatzi" eta lumaz perekatu...

Ondotik, klasean "ipuin asmaketa" lantzen lagunduko duelakoan...

IPUINGINTZA, ipuin kontaketa

Lehen Mailako irakasleeri zuzendua

Iraupena : 7 oren/ordu

Ipuin bat taldean kondatzea. Asmatutako ipuina edo herrikoia kondatzeko lehen pausoak ematea : ipuina aztertuz, nola kondatu nahi den aukeratuz, kontaketarako prestatuz, kontalari lana taldekideen artean banatuz, kontakizunaren ahoko lagunak hautatuz, eta azkenean ipuina kontatuz.

Ipuingintzan, hiruzpalau urrats gehiago...

Ipuin bat landu eta apailatuta, taldeak nola kondatu dezakeen...

Ondotik, klasean "ipuin kontaketa" lantzen lagunduko duelakoan...



Ipuingintza
Segida



IPUINGINTZA, ipuin asmaketa eta kontaketa (segida)

Iraupena : 7 oren/ordu

Publikoa : Lehen Mailako irakasleeri zuzendutako ikastaroa.

Kopurua : guttienez, 6 edo 7 lagun

Ikastaroaren helburuak

- Ipuinaren mundua, ahal bezain bat hurbiletik ikertu,
- "ahozko idazketa"ren teknika espermentatuz, idatziaren sostengua gabe, ipuin bat taldean asmatu eta bere osotasunean kondatzeko prestatu,
- Prestatu ipuina, geroxago irakurtzeko eta "gogoan" atxikitzeko, bakoitzak idatzira pasa lezake.

Tresnak

- ipuina eta ipuingintza "hitzaren arte" gisa aipatuko da, ahozkotasanaren eremu ezberdinak aurkeztuz,
- ipuin berria abiatzeko, edozein elementu, egoera edo ideia berezi hautatuko da,
- "ahozko idazketa" erabiliko da, denek parte hartuz, bat-bateko inprobisaketa eta "zirika jokoaren" bitartez
- ipuin berria osatuko da, behaketa, entzuketa, errespetua, irudimena, berezkotasuna, gogoratzea, adierazpena lantzearekin batera.

Helburu nagusiak... ikaslegoari begira

1. Ikastetxean, euskararen erabilpena sustatu

- Ahozkotasanari bere toki eman,
- Aho hizkuntzaren kalitatea balorizatu (hiztegia, erran moldeak atzokoak eta gaurkoak,
- Euskara landu eta erabili molde ezberdinetan, molde ludikoak erabiliz (antzerkitxo, olerki, koplak, kantua, musika, atsotitz,...)
- Ikasleen baitan euskararen erabilpena sustatu
- Ikasleei erakutsi eskolatik kanpo euskaraz komunikatzen dela ere
- Euskara gozatu, euskara momento goxo eta emozioekin identifikatuz, atseginez eta harrotasunez
- Publiko baten aintzinean kalitatezko hizkuntza atseginez erabili

2. Ipuingintzaren bitartez "hitzaren arteari" hurbildu

- "Ahozko idazketaren" teknikak taldean espermentatu joko eta bat-bateko inprobisaketa, egoera, irudi edo objektu azalpenen bitartez,
- Berezkotasuna garatu : norberak hitza librokori har dezan egoerak sortuz, norberari ideien garatzeko eta argiki adierazteko espazioa eskainiz.
 - Norberaren irudimena hedatu ipuinean

murgilduz, errealitatean oinarrituz, bere "jakitatea" eta iritzia eskainiz, sinbolismoak kontutan hartuz, sendimenduak agertaraziz,...

- Idatziaren sostengua gabe, ipuin bat asmatu eta kondatu,
- Publikoaren aintzinean (buraso, ahaide, ikasle eta beste eskoletako ikasle) kondalariaren lekua bete,
- "Entzule-ikusliarraren lekuan ematea", besteak zure ixtorioa nola ulertu, "ikus" eta segituko duen kontrolatuz,
- Memorizatzeko teknikak ikasi eta gaitasunak arlo horretan garatu : ideiak, egiturak, loturak eta ipuin osoa gogoan hartu.

3. Hizkuntza arloa jorratu

- Euskaraz harremanak izateko gaitasuna eta adierazpenerako berezkotasuna garatu.
- Ahozkotasanaren mundua eta bere ezberdintasunak deskubritu : errepikapenak, onomatopeiak, igarkizunak, aho-korapiloak, erranzahar eta atsotitzak.
- Hiztegia aberastu, ipuin kondaketan sinonimoen indarra balorizatuz eta hitz zehatzak eta zuzenak erabiliz, deskribapenak edo sendimenduak adierazteko adibidez.

Hazparneko "Ezkia" ikastolako Maite Erdozaintzi eta Koldo Amestoy-ek eratua



Graffit'hitz

Zenbait saio, aste eta hilabeteko ekitaldia. Tailer iraunkorra, edo epe batekoa ere izan daitekeena. Jende heldu eta euskaradunari zuzendua.

Jende nagusi eta euskaldun multzo batekin, hitza gurutzatuz, taldean ahoz aho arizanez eta hizkuntza gozatuz, gertakari edo gai baten inguruan kontakizun bat asmatzeko eta kondatzeko xedearekin...

Graffit'hitzen helburuak :

- Euskaraz hitzegitea sustatzea, sorkuntzarako giro artistiko batean,
- Bizikidetasuna, euskaraz berpizteko ahaleginetan parte hartzea,
- Hizkuntza maila ezberdinak topatzeko eta gurutzatzeko gune libre bat izatea,
- Hitzaren inguruko ekarpen artistiko bati hurbiltzea, eta hau kausitzea edo lortzea
- Jokoa, bestearen behakoa eta begiradaren babespean, adierazpiderako askatasun gehio lortzea,

Graffit'hitz, praktikan :

Graffit'hitz hitzaren tailer bat da, jende multzo batek euskaraz hitzegiteko unea. Gero, bakoitzaren erranak entzunik, taldeak hautatzen du "ixtorio gai bat edo beste" lantzeko. Ekai hau, "ahozko idazkeran" taldean moldatu eta gero, sorkuntza bat bilakatzen da. Sorkuntza hau, taldeak nahi izanez gero, publikoan agertua -ala ez- izan lezake.

Graffit'hitz, zuzendua da ...

Euskararen eguneroko eta segidako erabilera beren baitan garatzeko pausuak ematen ari diren egiturari: **kolektibitateak, herri elkargoak, elkarteak, enpresak, formakuntza erakundeak, berbalagun edo mintzalagun taldeak ...**

Graffit'hitz, zein publikorentzat ?

Multzo bat, 12 lagunez osatua, guttienez 5 lagunekilakoa

- Langile, ikasle edo langabetu,
- andrezko zein gizezko, ahalaz kopuru berdintsuan, adin eta egoera guzietakoak,
- elkarte, lantegi, elkargo edo kolektibo baten kide,
- "euskaldun berri" edo "zahar", kalakari handienetik, hizlari xumeenera :
- oinarrizko euskara erabilera daukan jendea, eta ahozko hizkuntzan aurreratu nahi duena, bere lanean bezainbat bere bizitza propioan baliatzeko gisan,

Graffit'hitz, norekin ?

Koldo Amestoy-en inguruan. Autore, kondalari, ikuskizun sortzaile eta gertakizun asmatzaile, bere artista esperientzia baliatuz, hots, hitzaren erabiltzaile eta zerbitzari den honekin.

Graffit'hitz, non, noiz eta nola ?

Gela lasai batean, frango argia eta zabala, mahai ttiki batekin eta jende bezainbat alkirekin. Egunaz edo iluntzetan, astean behin 2 orduko saioa, 3 hilabetez, 12 saio orotara.

Graffit'hitz eta diru ixtorioak ?

Tailer honentzako diru-kontua, kasu konkretu bakoitzari egokitua izanen.



AHO SORKUNTZA TAILERRA, ESKOLAN

Iraupena : 10 edo 12 oren/ordu

Lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzendua, 8 urtetik 12 urteko haurri.

Eskolako ikasleek elkarlanean, ipuin bat aho-sorkuntza teknikaz idazteko, idazketaren sostengua gabe ipuin bat asmatu eta kondatzeko.

Tailer honek lan berezia eskatzen du : bakoitzak bere irudimena askatzea, inprobisaketan murgiltzea, bestearen hitza aditzea, berea errespetatzea, berezkotasunean ausartzea, ipuinaren egiturak erabiltzea, kontakizuna konposaketa eta apaindura berriez moldatzea, eta azkenean ipuin berria kondatu eta publikoan aurkeztea.

IPUINAREN INGURUAN IKUSKIZUN ETA TOPAKETA

Iraupena : 2 oren/ordu

Lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzendua, 8 urtetik 12 urteko haurri.

Ipuina taulagainean.

Elkarrizketa eta eztabada, zuzeneko ikuskizun baten inguruan. Arte baten praktikarekin topaketa...

Kondalariak bere ikuskizun bat aurkeztu eta, publikoarekin solas-trukaketak bultzatzen ditu, ikuskizunaz, ipuinaz eta ahozkotasanaz, kontalari lanaren praktiketaz hitzegiteko...





IPUINA ETA ARTISTA EUSKAL HERRIAN

Iraupena : guttienez 2 oren/ordu

Gazte eta heldueri zuzendua, euskal kultura ezagutzeko ekitaldi baten kariatara.

Euskal Herriko ahokotasunaren inguruan solasaldi eta trukaketa Kondalaria topatzea, eta artista murgiltzen den kultur-giroari hurbiltzea.

Kondalari praktika, artista elebiduna sorkuntza bidean...

"ARTISTAK BILAKETAN" TAILERRA

Iraupena : egun 1 edo 2

Artista munduko jende gazte eta helduari zuzendua

Artista ibilbideak eta sorkuntza bideak Bakoitza laguntzeko, bere artista haria hurbiletik ikusten, norberaren arte-ateka eta bidea zein izan daitekeen aipatu eta ikertzen.

Artista berriak, lehen ausnarketa eta gogoetaldietan gidatzeko topaketa.



Koldo Amestoy, kondalari



IKUSKIZUNAK

Publiko nagusi edo zabalari zuzendutako ikuskizunak, kondalari bakarlari :

- **Biribilketa, luma beltza**
- **Harriola Marriola**
- **Biderditan**

Publiko nagusiari zuzendutako, kontaketa, kantu eta musika ikuskizunak, **Pantxix Bidart** musikari-kantariarekin bikotean :

- **In vino fabula**
- **Aneta Bokaleko**

Famili giroan entzuteko ikuskizunak, kondalari bakarlari :

- **Lukito**
- **Jentilak joan, Olentzero jin**

Gehiago jakiteko, dozier artistikoa eskatu edo begiratu, www.koldo-amestoy.com webgunea.